



# **GOBERNU BILERA**

## **Prentsa-Txostena Gai nagusiak**

# **CONSEJO DE GOBIERNO**

## **Dossier de Prensa Asuntos destacados**

**Vitoria-Gasteiz, 2017ko ekainak 27**

**Vitoria-Gasteiz, 27 de junio de 2017**

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **EAEKO HERRI-ADMINISTRAZIOEN ENERGIA-IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEGEA LEGEBILTZARRERA IGORRI DA, ENERGIA-AURREZTE ETA -ERAGINKORTASUNEAN BURU IZAN ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK EZARTZEKO**

Europar Batasunak energia-aurrezte eta -eraginkortasunaren inguruan osatutako araudi berriak Herri Administrazioak derrigortzen ditu aitzindari izatera energia-aurrezte, eraginkortasun eta energia berriztagarrien soluzio berritzaileak ezartzen. Soluzio horiek lehiakorrek izango dira gaitasuna duen eta funtzio hori bete dezakeen alorretan, esaterako, administrazioen instalazio eta bulegoekin lotutako eraikinetan, bertako langileen mugikortasun-beharrizanetan eta argiztapen publikoan.

Euskal sektore publikoak energia aurrezteko ahalmen handia du eta Herri Administrazioek, energia-aurrezte eta -eraginkortasunean laguntzeaz ez ezik, lidergo funtzioa hartu behar dute, herrialdearen energiaren erabilera eraginkorrean adibide izateko. Horrek, bestalde, irabazi ekonomiko eta sozial handiak, baita ingurumenekoak ere, ekarriko ditu euskal gizarte osoarentzat.

Hori dela eta, Eusko Jaurlaritzak pasa den Legealdian lege-proiektu bat osatzea pentsatu zuen, energia-politikaren norabidearen arabera, EAEko Herri Administrazioen alorrean energia-iraunkortasunerako funtsezko arauak ezartzeko; administrazioen betebeharrak artikulatu eta, funtsean, energia-aurrezte eta -eraginkortasunerako eta energia berriztagarriak sustatu eta ezartzeko neurriak bultzatzea zuen helburu.

EAEko herri-administrazioen energia-iraunkortasunari buruzko lege hori Gobernu Kontseiluak 2016ko uztailaren 19an onartu zuen eta Legebiltzarrari igorri zion urte bereko uztailaren 21ean. Legebiltzarra 2016ko irailean desegin zen eta hauteskunde-deialdiaren ondorioz lege-ekimen hori alde batera utzi zen; Eusko Jaurlaritzak berriz hartu du lege hori bultzatzeko asmoa.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak oso beharrezko ikusten du aurreko gobernuak onartutako lege-ekimen horri jarraipena ematea eta, horregatik, 2016-2020 Lege Egutegian txertatu zuen. Egutegi hori 2017ko otsailaren 28ko Gobernu Kontseiluak onartu zuen.

Gaurko Kontseiluaren ondoren, EAEko herri-administrazioen energia-iraunkortasunari buruzko legea berriz igorri zaio Legebiltzarrari, bertan eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko, ahalik eta adostasun handiena izango duen amaierako testua osatzea helburu.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKO JAURLARITZAK 15 MILIOI EUROTAKO DIRU LAGUNTZAK ONARTZEN DITU EUSKADIKO LEHEN SEKTOREAREN ALDE

#### 11 milioi euro inguru nekazaritzako elikagaiak eraldatzen eta merkaturatzen diharduten enpresei laguntzeko

- Apustu garrantzitsu hau beste urrats bat gehiago da nekazaritzako elikagaien industria lehiakorra eta iraunkorra finkatzeko euskal exekutiboa garatzen ari den politikaren barruan
- Finantzatu ahal izango diren ekintzen artean daude, besteak beste, nekazaritzako, basogintzako eta arrantza eta akuikulturako produktuak eraldatzeko edota merkaturatzeko inbertsioak

Ekainaren 27ko kontseilu bileran, nekazaritzako produktuak, elikagaiak eta arrantzakoak eta akuikulturatik eratorritakoak eraldatzeko eta merkaturatzeko 2017an emango diren laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura sailburu Arantza Tapiak emandako agindua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. **Laguntzen zenbateko osoa 10.925.000 euro dira**, eta Landa Garapenerako Nekazaritza Fondo Europarraren (FEADER) eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura finantzatuko dira, 2015-2020 Euskal Herriko Landa Garapeneko Programan ezarritakoaren arabera.

Apustu garrantzitsu hau beste urrats bat gehiago da tokiko eta kalitateko produktuari lotutako nekazaritzako elikagaien industria indartsu, lehiakorra eta iraunkorra finkatzen jarraitzeko euskal exekutiboa garatzen ari den politikaren barruan. Pasa den legegintzaldian abian jarri zen **Nekazaritako Elikagaien Industriarako Lehiakortasun Planean** eta gaur egun sektorearekin elkarlanean lantzen ari den eta seguruenik uda ondoren argia ikusiko duen **Gastronomia eta Elikaduraren Plan Estrategikoan** jasota dago apustu estrategiko hau.

#### Diru lagundu ahal diren ekintzak eta diru laguntzen onuradunak

- Aurreikusitako nekazaritzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egitea. Pertsona fisikoak edo juridikoak izan daitezke onuradunak: Ekoizpen establezimendua Euskal Autonomia Erkidegoan eduki eta produktuak eraldatu, garatu edo merkaturatzen dituzten nekazariak edo nekazari elkarteak, nekazaritzako kooperatibak edo nekazaritzako elikagaien enpresak.
- Basogintzako produktuak eraldatzeko, merkaturatzeko edo garatzeko inbertsioak egitea. Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke onuradunak, mikroenpresa, enpresa txiki eta ertainak badira.

- Arrantzako eta akuikulturako produktuak eraldatzeko eta merkaturatzeko inbertsioak egitea. Pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke onuradunak, bereizketa honekin:

Arrantzako eta akuikulturako produktuen eraldaketaren sektorearen barruan, honako azpisektore hauetakoak izango dira zehazki:

- Kontserbak.
- Erdikontserbak.
- Araztegiak, itsas haztegiak eta bestelako haztegiak.
- Gazituak, ketuak, oinarrian arraina duten aurrekozinatuak, etab.
- Aurreegosiak.
- Azpiproduktuen tratamendua eta eraldaketa.
- Oinarrian arraina duten produktuen lanketa (saltsak, arrain ordezkakoak, etab.)

Arrantzako eta akuikulturako produktuen salmentaren sektorearen barruan, honako azpisektore hauetakoak izango dira zehazki:

- Produktuak gehien bat euskal portuetan deskargatzen dituzten jatorriko handizkariak (hozkailetatik kanpoko biltegiatzea, hozkailetan biltegiatzea, izozte-biltegiatzea, etab. )
- Helmugako handizkariak (hozkailetatik kanpoko biltegiatzea, hozkailetan biltegiatzea, izozte-biltegiatzea, etab.)

- Euskal Autonomia Erkidegoko Nekazaritzako eta elikagaien industrietan inbertsioak egitea, aurreko ataletan sartzetik ez badute. Diruz lagundu daitekeen jardueraren bat egiten duten eta mikroenpresa txiki eta ertainak diren pertsona fisiko edo juridiko pribatuak izan daitezke onuradunak.

Laguntza eskaerak web helbide honetan egongo dira eskuragai: <http://www.euskadi.eus> Eskabideak Elikagaien kalitatearen eta Industrien Zuzendaritzako titularrari zuzenduko zaizkio eta Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegiturretako Sailak Vitoria-Gasteizen duen bulegoetan aurkeztuko dira (Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz) edo legeriak aurreikusten dituen lekuetako edozeinean. . Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) argitaratu eta hurrengo egunetik hasita. Ebazpena banaka eman eta jakinaraziko da, sei hilabeteko epearen barruan.

## 3,4 milioi nekazaritzako elikagaien sektorean lankidetza proiektu berritzaileak bultzatzeko

- **Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak Berrikuntza eta Lankidetzako Estrategia Bizia (EVIC) zabaltzen jarraitzen du, lankidetza eta esperimendazioa proiektuaren garapenaren zatia izango diituen kultura bat eraikitzeko.**
- **Lankidetza proiektu berritzaileak finantzatzeko dira, non gutxienez bi erakundek parte hartu beharko duten, horietako bat nekazaritzako elikagaien sektoreko balio katekoa izanik.**

FEADER fondoan erregelamendu europarrean eta 2015-2020 Euskal Herriko Landa Garapeneko Programan (OSOA) 2017rako aurreikusten diren lankidetza laguntzen deialdia onartu du Eusko Jaurlaritzak. Helburua da **landa guneean berrikuntza, lankidetza eta ezagutzaren garapena bultzatzea, Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailak diseinatutako Berrikuntza eta Lankidetzako Estrategia Bizia printzipioei erantzuten dieten proiektuak finantzatzuz, non gutxienez bi erakundek parte hartu beharko duten – horietako bat nekazaritzako elikagaien sektorekoak izan beharko da–, horretarako 3,4 milioi euro erabiliz.**

Laguntza horiek fondo galdurako diru laguntzak izango dira urte batean edo gehiagotan gauzatzeko diren proiektuetarako, eta proiektu ideia baten inguruan taldeak edo ekipoak eratzeko interesa duten sektoreko agente guztiei zuzenduta daude: enpresak, ikerketa zentroak, landa garapeneko elkarteak, kudeaketa zentroak, fundazioak, etab.

**Hirugarren urtea da laguntza bide hau deitzen dena, eta 2015ean eta 2016an guztira 51 proiektu jaso zuten laguntza hauek, lau miloi euro inguru finantzatuta.** Proiektu hauen eduki era askotakoa izan da, tartean direla Idiazabal JIko esne bilketaren optimizaziorako proiektua, Euskal Sagardoaren kupela monitorizatzeko berrikuntza teknologikoa, bai eta intsektuen larben hazkuntzaren bitartez okela hondakinen balorizatzekoa ere. 2017ko deialdian 70 proiektu inguru aurkeztea espero da.

Eusko Jaurlaritzaren ustez **lankidetza ezinbesteko tresna da lehen sektorea eta landa ingurunea berritzeko, izan ere, beharrezkoa da gaitasun sozial, ekonomiko, tekniko eta teknologikoen osagarritasuna.** Premisa horrekin, Nekazaritza, Arrantza eta Elikagaien Politikako Sailburuordetzak Berrikuntza eta Lankidetzako Estrategia Bizia (EVIC) jarri zuen abian pasa den legegintzaldian, estilo eta kultura jakin bat eraikitzeko asmoarekin, non lankidetza, jakin-mina eta esperimendazioa ohiko jardunbide eta sektore honen egunerokoaren zatia izango diren.

### Laguntza bideak

2017an lankidetzarako laguntza hauek arautuko dituen dekretuan bide hauek aurreikusten dira:

1. Europako Berrikuntza Elkartearen (AEI) Talde Operatiboak sortzea eta lanean jartzea nekazaritzaren produktibitatearen eta iraunkortasunaren alorrean.
2. Produktu berriak, praktikak, prozesuak eta teknologiak garatzea, nekazaritza, elikagaigintza eta basogintzaren sektoreetan, Berrikuntza Taldeekin lankidetzan aritzeko planteamenduen ondorioz.
3. Agente txikien arteko lankidetzan lan prozesuak elkarrekin antolatzeke eta instalazioak eta baliabideak partekatzeko, bai eta turismo zerbitzuak garatu edo merkaturatzeko ere.
4. Elkarrekin diharduten banaketa katearen agenteak, beraien produktuak merkaturatu eta sustatzeko, merkaturatze kanal laburrak eta tokiko merkatuak abian jarriz edo garatuz, eta tokiko testuinguruan sustapen jarduerak eginez.
5. Agenteen arteko lankidetzan klima aldaketa arintzeko edo moldatzeko baterako ekintzak garatzeko eta ingurumenari lotutako proiektu eta praktiken gaineko baterako planteamenduetarako.
6. Lankidetzan horizontala eta bertikala banaketa agenteen artean elikagaiak egiteko eta energia ekoizteko eta industri prozesuetan erabiltzen den biomasaren hornikuntza iraunkorrean.
7. Lankidetzan osasun laguntzarekin, gizarte integrazioarekin, komunitateak babestutako nekazaritzarekin eta ingurumenari eta elikadurari buruzko heziketarekin lotura duten jardueren dibertsifikaziorako..

**Laguntzez baliatuko direnak desberdinak izango dira laguntza bidearen arabera, eta, beraz, talde operatiboak zein proiektu bat garatzeko elkartu eta berrikuntza talde bat osatzen duten pertsona fisiko edo juridikoak izan ahal izango dira onuradunak.**

Eskaerak egiteko epea hilabete batekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita. Elikagaien Kalitatearen eta Industrien Zuzendaritzari egokituko zaio eskabideak kudeatzea.

Laguntza eskaera [www.euskadi.eus](http://www.euskadi.eus) webgunean egongo da eskuragarri eta Elikagaien Kalitate eta Industrien Zuzendaritzari zuzenduko zaizkio. Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako Sailaren bulegoetan aurkeztuko dira zuzenean edo Administrazio Prozeduraren Legean aurreikusitako edozein bidetatik.

### **Eusko Jaurlaritzak 73.100 euroren laguntzak iragarri ditu untxi hazkuntzarako**

Ekainaren 27an Gobernu Kontseiluak egindako bileran, untxi hazkuntzarako ustategietarako laguntzak iragartzeko Ekonomiaren Garapeneko eta Azpiegituretako sailburuak emandako agindua onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Helburua da sektore honetako abeltzaintza jarduerari eusten laguntzea, eta ahal den neurrian ustategi horiek bizitzen ari diren zailtasunak arintzea.

2017an Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura emango diren laguntzen bolumen osoa 73.100 eurokoa izango da gehienez, eta diru kopuru hori eskatzen diren baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztien artean hainbanatuko dira. Hauek izango dira baldintza horiek:

- Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde eremuan kokatuta dagoen ustiategi baten titularra izatea.
- Ustiategia Euskal Herriko Nekazaritza Ustiategien Erregistro Orokorrean eta Nekazaritza Ustiategien Erregistroan (REGA) inskribatuta egotea dagokion sailkapenarekin.
- Nekazari profesionala izatea, abenduaren 23ko 17/2008 Legearen 4.artikuluak ematen duen definizioaren arabera.
- Animalien trazabilitate, ongizate, higiene eta osasunaren alorretan indarrean dauden araudiak betetzea eta alor horretan arau hausteengatiko zehapenak bete gabe ez edukitzea.
- Foru Ogasunekiko eta Gizarte Segurantzarekiko zerga betebeharren ordainketak egunean edukitzea.
- Minimien erregimenaren pean 15.000 euroren laguntzak jasota ez izatea, kontzeptua edozein dela ere, ez deialdi honen aurreko bi zerga ekitaldietan, ez eta oraingo zerga ekitaldian ere.
- Zigor arloan edo administrazio arloan zehaturik egoteagatik diru laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera galduta ez edukitzea, ez eta legezko debekuren baten pean egoteagatik horretarako gaitasunik ez edukitzea.

Laguntza eskaerak Nekazaritza eta Abeltzaintza zuzendariari zuzenduko zaizkio eta, aurkeztu, Nekazaritzako Eskualde Bulegoetan zein Ekonomiaren Garapeneko Sailaren bulegoetan edo azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legeak aurreikusten dituen lekuetako edozeinetan. Eskaerak aurkezteko hilabeteko epea egongo da, Agindua argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### EUSKO JAURLARITZAK LEGEBILTZARRARI IGORRI DIO 2020 EKINTZAILTZAKO ERAKUNDE ARTEKO PLAN BERRIA

- **Planak EAEko sail eta instituzio guztien partaidetza du**
- **Aipatzekoak dira 300 ekintzatik gora, on line gordailu komun batean jasoko direnak**
- **EAEko ekintzailtzak bereizgarri du proiektuen iraupen luzea**
- **295 M euroko aurrekontu publikoa aurreikusten du, nahiz eta inplikazio pribatuak goranzko joera ezartzen duen**

Gobernu Kontseiluak, gaur egindako bileran, erabaki du Eusko Legebiltzarrari igortzea EAEko 2020 Ekintzailtzako Erakunde Arteko Plan berria (EEP 2020). Sail arteko eta erakunde arteko plana da, 16/2012 Legeari dagokiona (EAEko Ekintzaileei eta Enpresa Txikiei Laguntzekoa), eta aurki aurkeztu eta eztabaidatuko da Eusko Legebiltzarraren baitan.

EEP 2020 planak jarraitutasuna ematen dio 2013-2016 Ekintzailtza Jarduerari Laguntzeko Erakunde Arteko Planari (EJLEAP). Plan horretan, lehen aldiz jaso zen EAEko ekintzailtzaren ikuspegi integral bat, honako hauen partaidetzari esker: Eusko Jaurlaritzako sail guztiak, EAEko udalak (EUDELen eta EAEko hiru hiriburuen bitartez), EAEko udalerrien toki-garapeneko agentziak — GARAPEN— eta beste agente garrantzitsu batzuk (agente finantzarioak, inbertitzaileak, enpresakoak, hezkuntzakoak eta sozialak).

EEP 2020ren helburua da euren lehentasunen artean ekintzailtza jasotzen duten EAEko instituzio guztientzat lehentasunak planifikatu eta finkatzeko esparru komun bat izatea.

Ekintzailtzari laguntzeko 300 ekintza baino gehiago biltzen ditu, eta on line gordailu bakarra sortuko da UP Euskadi atari berrian.

EEP 2020ri lotutako aurrekontu publikoa, 2017an, 72,5 milioi eurokoa da. Hala, aurrekontu hori estrapolatuta eta 2020ra arteko gehikuntza-aurreikuspena kontuan izanda, 2017-2020 Planerako 295 milioi euroko aurrekontua aurreikusi da.

EEP 2020ren ekintzak eta aupadak ekintzailtza-ekosistema baten testuinguruan gauzatuko dira. EAEn, ekosistema horren bereizgarri da proiektuen biziraupen luzea: gizonak eta emakumeak prestatuta daude ekiteko; instituzioen etengabeko laguntza dago 80ko hamarkadatik; babesa ematen zaie askotariko ekintzailtza-kolektiboiei; sektore pribatua gero eta interes eta babes handiagoa erakusten ari da.

EEP 2020ren gauzatze eta koordinazio operatiboa, batez ere, Business Innovation Centre (BIC) edo berrikuntzako enpresa-zentroen esku egongo da.



Horiek Eusko Jaurlaritza eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru-aldundiak dituzte bazkide.

Koordinazio operatiboko batzorde bat ezarriko da Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saileko ordezkariekin, SPRIrekin, eta BIC osoarekin; hau da, BIC Araba, BIC Bizkaia, BIC Bizkaia Ezkerraldea eta BIC Gipuzkoarekin.

## **Ekintzaitzaren etorkizuneko aupadak EAEn**

### *1. Kultura eta balio ekintzaileak*

Helburu estrategikoa: Sustatzea ekintzaileen kultura eta balioak gizartearen maila eta bizitzaren etapa guztietan, ziurtatuz herritar guztiek kontzientzia positiboa izango dutela ekintzaitzarekiko, etorkizuneko aukera erakargarritzat.

### *2. Giza kapitalaren trebakuntza eta konexioa*

Helburu estrategikoa: Giza kapital ekintzailearen trebakuntza indartzea (batez ere, hezkuntza-etapa guztietan), eta erraztea haren erakarpena, kontratazioa, mugikortasuna, elkarreragina eta konexioa ekintzaitza-aukera berriekin.

### *3. Ekintzaitzaren iturriak eta ideiak*

Helburu estrategikoa: Areagotzea masa kritikoa eta “kala” eta iturrietatik sortutako ideiak eta ekimen berriak, kolektibo ekintzaile bakoitzaren berriarazko beharrei erreparatuta.

### *4. Finantzaketa eta inbertsiorako lorbidea*

Helburu estrategikoa: Sortu, abian jarri, hazi eta finkatzeko ahalmena duten proiektuetarako finantzaketa eta inbertsioa lortzeko hautabideak ematea.

### *5. Merkaturako sarbidea*

Helburu estrategikoa: Proiektu ekintzaileei merkaturako eta “lehen bezeroetarako” aukerak eskaintzea; bereziki, etorkizuneko RIS3 sektoretan ahalmen handiena dutenei dagokienez.

### *6. Laguntzako prozesuak, zerbitzuak eta programak*

Helburu estrategikoa: Dauden laguntzako prozesuak, programak eta zerbitzuak egokitzea, erakunde arteko koordinazioaren eta lankidetzaren bitartez, herritar ekintzaileen beharretara.

### *7. Zerga-sistema eta araudi erraztaileak*

Helburu estrategikoa: Eguneratzea ekintzaitza-lanarekiko oztupoak ezabatzeko tresna fiskalak eta araudiak, EAE garapen fiskalaren eta araudi-arlokoaren erreferentzia gisa jarrita.

### 8. *Azpiegitura adimendunak*

Helburu estrategikoa: Azpiegitura “adimendunak” izatea, proiektuak sortu, heldu, hazi eta finkatzen lagunduko dutenak.

### 9. *Ekosistemaren posizionatzea*

Helburu estrategikoa: EAE posizionatzea “ekiteko toki egokitzat”, bai bertako herritarren artean, bai Estatuko eta nazioarteko beste ingurune batzuetan; gero eta osatuagoa, aktiboagoa, sinergikoagoa eta ezagunagoa izango den laguntzako ekosistema duen herritzat, hain zuzen.

## Ekonomiaren Garapena eta Azpiegiturak

### **BANDA ZABALA INDUSTRIA GUNEETARA ERAMATEKO PROGRAMAREN BIGARREN FASEA ONARTU DA**

- **Helburua da banda zabal ultralasterra Euskadiko enpresa-gune guztietara eramatea**
- **Euskadik Banda zabal Ultralasterraren Euskal Behatokia izango du, lurralde osoko konektibitatearen jarraipena egiteko**

Gobernu Kontseiluak Banda zabala industria-guneetara eramateko Programaren bigarren fasea onartu du gaur. Horren bidez, gune zurian dauden enpresa-guneetan Internetera sarbidea edukitzea lortu nahi da. Horretarako, 8.739.848€ bideratuko dira, bi zatitan banatuta, enpresa-gune guztietara heldu ahal izateko.

2016ko apirilean Euskadiko 2020rako Agenda Digital Berria onetsi ondoren, euskal erakundeek –Eusko Jaurlaritza eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak– jarduketa-plana prestatu zuten; plan horren bidez, Euskadin dauden enpresen konektibitatea hobetzearen aldeko apustu argia egiten da. Merkatu globalizatuan lan egiten duten eta lehiakortasuna hobetzen laguntzeko Internetarako sarbide ona behar duten enpresak.

Banda zabala industria-guneetara eramateko Programaren lehenengo fasea 2017ko lehenengo hilabeteetan ebatzi zen, eta gaur bigarren fasearen deialdia onartu da, programa osorik bete ahal izateko.

Industria-eremuen % 45 (poligonoak izan edo bi-hiru enpresa dituzten eremuak izan) “gune zuria” izenekoan dago; gune horietan ez dago belaunaldi berriko banda zabaleko sarerik, eta ziurrenik ez da garatuko etorkizun hurbilean. Enpresek Internet gero eta intentsiboago erabiltzeko egiten duten eskari handia kontuan hartuta, eta Agenda Digital Berrian adierazitako jarraibideen arabera, euskal erakundeek laguntza-programa bat abiarazi zuten, 2.200.000€-an, eta horrek enpresa-arlo horietan banda zabal ultralasterreko sareak zabaltzea sustatzen du (gutxienez 100Mbps). Laguntza horiei esker, operadore esleipendunek 5,5 milioi euroko inbertsioa egitea sustatu zen.

Testuinguru honetan, Eusko Jaurlaritzak hiru Foru Aldundiekin elkarlanean, abian jarri du Planaren bigarren deialdia, NGA sareak gune zurian dauden 176 enpresa poligonoetara iristea sustatuz. 176 poligono hauek bi lotetan banatu dira, operadoreak guztietara iristea bermatuz.

- 147 enpresa poligono konektibitate behar oso handikoak, gutxienez 300 Mpbko abiadura simetrikoa eskainiko duten NGA sare bidez. Lote honi, 8,7miloitik 8,2 miloi eskainiko zaizkio.
- 29 enpresa poligono, konektibitate behar handikoak, saretik erabiltzailerako norantzan transferentzia tasan gutxienez 100 Mpb

eskainiko dituen NGA sarea eta gutxienez 20 Mpb erabitzaitetik sarerako norantzan.

## **Banda Zabal Ultralasterraren Euskal Behatokia**

Belaunaldi berriko Internetera sarbide-sareak aztertu ondoren, Banda Zabal Ultralasterraren Euskal Behatokia eratu da, eta horren helburu nagusia izango da Euskadiko industria-gune, populazio-gune eta gune sakabanatueta belaunaldi berriko Interneten konektibitatearen jarraipena egitea, baita SESIADekin gune zuriak identifikatu eta argitzeko elkarlanean aritzea ere. Hala, Euskadiko udalerrri guztien benetako egoeraren inguruko informazioa lortuko da.

Era berean, behatokiak abian diren laguntza-programen jarraipena egingo du, martxan dauden lanak eta epeak monitorizatzeko.

Konektibitate-beharrizanen inguruko azterketak aditzera eman du halako behatoki bat beharrezkoa dela, Komunikazio Elektronikoko operadoreek ez baitute zerbitzurik eskaintzen enpresa-gune eta udalerrri askotan, eta zerbitzu horiek beharrezkoak dira enpresen lehiakortasunari eutsi eta lurraldeen arteko oreka bermatzeko. Erakundeen arteko koordinazioa beharrezkoa dela ikusi da, jarduketa-politikak sustatzaileak eta eraginkorrak izateko eta, beraz, behatokiak konektibitatearen egoeraren inguruko txostenak igorriko ditu hala eskatzen duten Udal eta Foru Aldundientzat.

Banda Zabal Ultralasterraren Euskal Behatokiak Spri, Hazi eta Itelazpiren laguntza izango du.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

### **GOBERNUAK 3,6 MILIOI BANATU DITU UDALEN ARTEAN, GIZARTE-LARRIALDIETARAKO LAGUNTZEN KONPENTSAZIO GISA, TOKI ERAKUNDEEN LEGEAK EZARRI BEZALA**

Gobernu Kontseiluak, Beatriz Artolazabal Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak proposatuta, 2016 ekitaldiko gizarte-larrialdietako laguntzen konpentsazioa banatzea erabaki du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraikiz. 3.630.325,44 euroko kopurua onetsi da, beraz, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legearen zortzigarren xedapen iragankorrean ezarritako legezko betebeharra betetzeko.

2017rako, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak partida bat aurreikusten du lau milioi euroko konpentsazio honetarako; Gobernuak kreditu hori egokitzen eta nahikotzat jotzen du, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko Legean ezarritako konpentsazioa betetzeko.

Kompentsazio hori jasoko duten udalerriak dira 2016an hasiera batean autonomia-erkidegoko administrazio nagusiak eginiko gizarte-larrialdietako laguntzengatiko esleipenak baliabiderik gehienekin bete zituztenak eta ehunekoak gaituz egin dutenak (hasierako esleipenetik gaituztako kopuruaren herena edo erdia, biztanle-kopuruaren arabera).

Udalerrri bakoitzak gizarte-larrialdietako laguntzengatiko konpentsazioen ondorioz jaso behar duen amaierako zenbatekoa dela eta, zortzigarren xedapen iragankorrek ezartzen du zein izan behar duen Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu behar duen betebeharr ekonomikoa (udalerriko biztanle-kopuruaren arabera), kontuan hartuta, edonola ere, gehienez udalei eginiko hasierako esleipenaren ehuneko 30 izango dela.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### 3,5 MILIOI EURO BIDERATU DIRA ITURRIGORRI-GARDEAZABAL (BILBO) EREMUAREN LEHENERATZE PROIEKTUAK ERAGINDAKO ETXEBIZITZEN DESJABETZEA ORDAINTZEKO

Gobernu Batzordeak gaur onartu du Ogasun Sailak Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren aurrekontura 3,5 milioi bideratzeko dekretua. Zenbateko hori bideratu da Iturrigorri-Gardeazabalen leheneratze-proiektuak eragindako etxebizitzaren desjabetzeak ordaintzeko; kostu horren gaineko ardura Bilboko Udalari dagokio.

Akordio horren bidez, Bilboko Peñascal auzo kaltetuaren leheneratzean beste urrats bat eman da. Prozesu hori Ingurumen Saila Bilboko Udalaren laguntzaz egiten ari da. Bi erakundeok 2013an xede horretarako sinatutako hitzarmenean ezarri zen Udalak Iturrigorri eta Gardeazabal eremuetan eraitsi beharreko infraetxeak desjabetzeko kostu osoa hartuko zuela bere gain; Ingurumen Sailak, hainbat gairen artean, horretarako behar zen dirua aurreratzeko konpromisoa hartu zuen.

Proiektuaren III. faseak eragindako pertsonen desjabetzeak egin eta ordaindu ostean, Bilboko Udalak Ogasun eta Ekonomia Sailaren kontuan ordaindu ditu Ogasun Sailak aurreratutako 3,5 milioi euroak eta, beraz, orain, zenbateko hori bere aurrekontura itzuliko da.

Etxebizitzak auzoan garatutako proiektuaren egutegiaren arabera, aurreikusi da urte honen amaieran amaituko direla Uretamendiko 45 gizarte-etxebizitzaren eraikuntza-lanak eta bertara joango dira Gardeazabalgo desjabetutako etxebizitzetan legearen arabera bizi ziren familiak. Lekualdatze hori 2018ko udan egitea aurreikusi da, etxebizitza berrien alokairu-kontratuak edo, hala badagokio, salerosketa-eskiriturak sinatu ondoren.

Ondoren, planeamendu-ordenamendutik kanpo dauden Gardezabal eremuko eraikinak eraitsiko dira eta eremu osoko **urbanizazio**-obrak hasiko dira.

Bestalde, datozen uztail eta abuztuan zehar, jada amaitutako Iturrigorriko desjabetzeak eragindakoen lekualdaketak egingo dira Peñascaleko eremu horretako 38 gizarte-etxebizitzetara eta, espero denez, irailtik aurrera auzo horretan ordenamendutik kanpo dauden eraikinak eraisteari ekin ahalko zaio.

## Hezkuntza

### 26 MILIOI EURO 2017-2018 IKASTURTEKO UNIBERTSITATE- BEKETARAKO

- **2016-2017 ikasturtean 11.548 euskal ikasle izan dira unibertsitate-beken onuradun**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, gaurko bilkuran onartu du 2017-2018 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko diru-laguntzetarako deia egiten duen agindua. Deialdi honetan, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak eta etekin handiko unibertsitate-ikasleak aitortzeko eta saritzeko bikaintasun akademikoko beka ere jasotzen dira. Orotara, Hezkuntza Sailak 26 milioi euro bideratzen ditu unibertsitate-beketarako.

1.- 2017-2018 ikasturtean unibertsitateko eta goi-mailako ikasketak egiteko beka: 25, 78 milioi euro

Beken deialdi hau, 25.780.000 euroko diru-kopuruarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan administrazio-egoitza duten ikasleentzat da, 2017-2018 ikasturtean Autonomia Erkidego honetan edo Estatuaren gainontzeko tokietan kokatuta dagoen edozein tokitan ondorengo ikasketak egin behar badituzte:

- Gradu unibertsitate-titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- Unibertsitate-masterreko titulu ofiziala lortzera bideratutako ikasketak
- 25 urte baino gehiagokoak unibertsitatean sartzeko prestakuntza-ikastaroak, unibertsitate ez-presentzialetan emandakoak
- Goi-mailako arte-ikasketak.

Datorren ikasturterako berritasun esanguratsuen artean, aipatzekoa da deialdi berri honetan matrikula osagaia Euskaditik kanpora unibertsitatez betseko goi-mailako ikasketak burutzen ari diren ikasleei ere ordainduko zaiela. Bestalde, beka eskuratzeko eskatzen den aurreko urteko errendimendu akademikoari dagokionez, aldaketa egin da masterra ikasi nahi duten ikasleentzako batez besteko sarrera-notan. Zehazki, puntu erdi jaitsi da batez besteko nota, 6,5etik 6ra, lanbide arautu batean aritzeko gaitzen duten edo lanbide horretan aritzeko bete beharreko baldintza diren masterretako lehen kurtsoko ikasleentzat. Gainerako masterretan batez besteko nota 6,5 izango da gutxienik.

2016-2017 ikasturte honetan, 11.548 euskal ikaslek eskuratu dute unibertsitateko beka orokorra, bere osagaietakoren batean edo zenbaitetan, hala nola: matrikula osagaia, material didaktikoa, hiriarteko joan-etorriak, probetxu akademikoa, egoitza, edo ezohiko osagaia.

2.- Beren ezaugarri fisikoak edo psikikoak direla-eta, mugitzeko zailtasun bereziak dituzten ikasleen garraio-gastuak ordaintzeko diru-laguntzak, baldin

eta 2017-2018 ikasturtean unibertsitate-ikasketak edo goi-mailako beste ikasketak batzuk Euskal Autonomia Erkidegoan egiten badituzte: 100.000 euroko diru-kopurua

3.- Bikaintasun akademikoko beka: 120.000 euroko diru-kopurua.

Bikaintasun akademikoko beka etekin akademiko handia duten ikasleei zuzenduta daude. Ikasleek Euskadiko edo Estatuko unibertsitateetan matrikulatuta egon behar dute, gradu-ikasketak egiteko. Beka hauen helburua da, unibertsitateko ikasleen ikasketetan eta ikerketa-zereginetan bikaintasuna sustatzea, ikasle horien etekin akademikoa sarituz.



## Hezkuntza

### 31 MILIOI EURO HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN UNITATEAK SORTZEKO, ITUNPEKO IKASTETXEETAN

- **2016-2017 ikasturtean, 562 profesional arduratu dira hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleez deialdi honen bidez**

Gobernu Kontseiluak gaurko bilkuran onartu du, Hezkuntza Sailburuak proposatuta, 2017-2018 ikasturterako hezkuntza berezirako unitateak zehaztu ditzaten itunpeko ikastetxeei dei egiten dien Agindua.

31.067.525,08 euroko kopuru osoa duen deialdi hau, Euskadin Lehen Hezkuntza edo Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzeko baimenduta dauden itunpeko ikastetxeei zuzendua da, hurrengo ikasturterako ituntzeko unitateak zehaztu ditzaten ondorengo ataletan: Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza berezi irekian, berariazko hezkuntza-errefortzuko proiektuetan eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan.

#### **562 profesional**

Deialdi honen bidez, itunpeko ikastetxeetan Lehen Hezkuntzan eta DBHn ari diren eta hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleei arreta emateko beharrezko diren profesionalak finantzatzen ditu Hezkuntza Sailak.

Amaitu berri den 2016-2017 ikasturtean, Lehen Hezkuntza berezi irekian 227 gela itundu dira, eta beste 210 gela Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza irekian. Unitate horietan, orotara, 5.028 ikasle batu dira. Ikasle horiez arduratzeko, Pedagogia Terapeutikoko 437 irakasleren lana finantzatu du Hezkuntza Sailak.

Era berean, berariazko hezkuntza-errefortzuko 73 proiektu, eta curriculum-aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko 52 programa ere itundu dira aurreko ikasturtean, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan. Programa hauetarako hezkuntzako 125 profesional aritu dira lanean, hauek ere deialdi honen bidez finantzatuak.

**Hezkuntza berezi irekia:** Lehen Hezkuntzan zein DBHn, hezkuntza premia bereziak dituen ikaslea bere ohiko ikasgelan egon ohi da, ingurune normalizatu eta inklusiboan, eta ingurune horretan jasotzen du pedagogia terapeutikoko irakasleen laguntza. Horrela ulertu behar da "irekia" kontzeptua. Batez ere, desgaitasunen batetik edo jokabide-nahasteetatik eratorririko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak izan ohi dira, ikasteko zailtasunak dituztenak, hezkuntza-sisteman berandu sartu direnak, edo arreta-faltagatik desoreka dutenak, besteak beste.

**Berariazko hezkuntza-errefortzuko programek** errefortzu-irakaslez hornitzen dituzte Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako zentroak, ikasle guztien osoko

prestakuntzan eragingo duten hezkuntza-jardunbideak antolatzeke aukera izan dezaten. Bereziki, gizarte-egoera kaltetuekin lotuta beren curriculum-erreferentziarekiko atzerapena agertzen duten edota eskola-girora egokitzeko zailtasun larriak dituzten ikasleei zuzentzen zaie programa. Hau da, DBHko lehenengo eta bigarren mailakoak izanik, Lehen Hezkuntzako curriculum-erreferentzia agertzen duten ikasleei zuzentzen zaie. Programa honen baitan, ikasleek ikasgela arruntean ikasiko dute, beren ikaskideen irakaste-ordutegi berean.

Bestalde, **Curriculum Aniztasunaren bidez ikaskuntza eta errendimendua hobetzeko programetan**, aurrekoetan ez bezala, berariazko taldeak sortzen dira ikastetxeetan. DBHko hirugarren nahiz laugarren mailako ikasleei zuzentzen zaizkie, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako diplomadun-titulua lortzera bideratzen dira. Hain zuzen, DBHn matrikulatutako ikasle guztiek titulua lortzea bilatzen du; hartara, ikasketekin modu normalduan jarraitu ahal izan dezaten. Horretarako, 8-15 ikasle arteko taldeak eratzen dira institutuetan, eta curriculum-arloen bitartez irakasten dira ikasgaiak talde horietan: batetik, hizkuntzen eta gizartearen arloa; bestetik, zientzia eta teknologiarena. Arlo bakoitzean, erreferentziako irakasle bat ezartzen da eta hark antolatzen ditu esparru horretako ikasgaiak, modu globalagoan antolatu ere, arloko ikuspegi batetik. Hala, ikasleek bizitzan aurrera egiteko beharrezko gaitasunak bereganatuko dituzte arlo bakoitzean, eta ez dute horrenbeste jardungo ikasgaien eduki oso espezifikoari lotutakoetan.

## Hezkuntza

### **IKASIKER, IKERKETA LANETAN LAGUNTZEKO BEKETARAKO DEIALDIA**

- **320.000 euroko zenbatekoarekin, 160 beka eskainiko ditu**
- **Beka jaso duten ikasleek Euskal Unibertsitate Sistemako ikerketa-taldeetan, BERCetan, Ikerketa Sanitarioko Institutuetan edo Ikerketa Kooperatiboko zentroetan eman ahal izango dute laguntza**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuak proposatuta, ikerketa lanetan laguntzeko Ikasiker beketarako deia egiten duen Agindua onartu du gaurko bileran.

Ikasiker beka unibertsitate ikasleei zuzenduak dira, ikasketekin aldi berean (2017ko irailtik 2018ko abuztuaren 31ra bitartean) honako ikerketa talde hauetan laguntza emateko prest dauden ikasleentzat: Euskal Unibertsitate Sistemaren ikertaldeetan, Oinarrizko Ikerketa eta Bikaintasun Zentroetan (BERC), Ikerketa Sanitarioko Institutuetan (ISI) eta Ikerketa Kooperatiboko Zentroetan (IKZ), hain zuzen ere, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agente gisa kreditatutakoetan

Programaren helburua da unibertsitate-ikasleak euskal ikerketa-sisteman egiten den oinarrizko ikerketa aplikatuaren arloko lanetan hastea. 320.000 euroko diru-kopuruarekin, 160 beka eskainiko dira, honako modalitate hauetan:

- A modalitatea (ikasturtean zehar, 2017ko irailtik 2018ko ekainera): 120 beka.
- B modalitatea (udan, 2018ko uztailetik abuztura): 40 beka

Beka hauek eskuratu nahi dituzten ikasleek unibertsitateko graduako titulazio ofiziala lortzera bideratutako ikasketa-plan bateko azken bi urteetako batean matrikulatuta egon beharko dute, Euskal Unibertsitate Sistemako unibertsitate batean edo Estatuko unibertsitate batean. Bekaren onuradun izateko, Euskadin izan beharko dute administrazio-egoitza, eta lankidetzaren proiektu bat aurkeztu, lankidetzaren hori gauzatu nahi den ikerketa zentroak behar bezala ziurtatua.

## Hezkuntza

### **200.000 € EUSKARAZKO IKASMATERIAL DIGITALETARAKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko egunez agindu bat onartu du, unibertsitate aurreko irakasmaitetarako euskarazko ikasmaterial digitalak egiteko laguntza-bideetara dei egiten duena (EIMA 2.0).

Agindu honen xedea honako hau da: euskarazko ikasmaterial digitalak, oinarrizkoak zein osagarriak, prestatu edo egokitzeko eta hezkuntza-komunitatearen eskura jartzeko diru-laguntzak, 200.000 euro, arautzea eta horietarako dei egitea.

Unibertsitate aurreko irakasmaitetarako ikasmaterialak hartzen ditu deialdi honek kontuan. Helburu nagusia arlo horretan irakaskuntzan egon litekeen hutsunea betetzea da eta ikasle zein irakasleei beren jardunerako ikasmaterialak eskaintzeko bideak jartzea.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### ELEBIDERA IRITSITAKO HIZKUNTZA ESKUBIDEEN URRAKETEKIN LOTURIKO KEXAK JAITSI EGIN ZIREN 2016AN

- **Eusko Jaurlaritzari eta honen entitate publikoei zuzendutakoak ere nabarmen murriztu dira, 313tik 275era jaitsiz.**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak Elebide-Hizkuntza-Eskubideak Bermatzeko Zerbitzuaren 2016. urteko memoria jaso du. Txosten honen arabera, iaz 544 izan ziren izapidetutako intzidentziak, eta horien %83a hizkuntza eskubideak urratu zaizkiela sentitu duten herritarren kexak dira (guztira, 452 kexa). Beraz, kexei dagokienez, nabarmendu behar da aurreko urtearekin alderatuta jaitsiera izan dela: 470 kexa jasotzetik 452 kexa jasotzera.

Intzidentzien tipologiari dagokienez, horrela banatzen dira: 452 kexa, 66 eskaera, 19 kontsulta eta 7 iradokizun. Izapidetutako 452 kexetatik, 444 euskara erabiltzeko eskubidearekin loturiko kexak izan dira; 8 kasu, aldiz, gaztelania erabiltzeko eskubidearekin loturikoak izan dira. 8 kasu hauetatik, 5 administrazioarekiko harremanetan gertatu dira (horietako 3tan argitu da ez dela egon hizkuntza eskubideen urraketarik) eta 3 esparru pribatuan. Beraz, txostenak argi erakusten du azken lau hamarkadotako euskararen normalizazio prozesuaren aurrerakada gorabehera, oraindik ere euskarari dagozkiola hizkuntza eskubideen urraketak.

Kexa guztien %89a (402 kexa) esparru publikoaren ingurukoak dira, eta % 11 (50 kexa) esparru pribatuari dagozkio. Beraz, aurreko urtearen aldean, behera egin dute esparru publikoko kexek (420tik 402ra) eta bere horretan jarraitzen dute esparru pribatukoek (50 kexa). Herri administrazio eta erakundearen kasuan, aurkeztutako kexen %68a Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari zuzendu zaizkio (275 kexa). 2015. urtearekin alderatuta, 38 kexa gutxiago jaso dira. Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoari zuzendutako kexa horien artean, 34 Eusko Jaurlaritzaren aurkakoak izan dira eta 241 Eusko Jaurlaritzaren erakunde eta sozietate publikoen aurka (iaz 271 izan ziren).

#### **Gainontzeko erakundeak**

Foru aldundiei dagokienez, 26 kexa zuzendu zaizkie 2016an: Arabako Foru Aldundiari, 2; Bizkaiko Foru Aldundiari, 23; eta Gipuzkoako Foru Aldundiari, 1. Toki administrazioen kasuan, berriz, 64 kexa izan dira; iaz baino 9 gehiago.

Elebidek izapidetutako 544 intzidentzietatik, 484 itxita zeuden 2017ko martxoaren 31rako; alegia, informazioa emanda zegoen eta espedienteak ebatzita. Kexei erreparatzen badiegu, hiru kasu gerta daitezke: kexak irtenbide egokia izatea (konponbidea egotea), irtenbiderik ez izatea; eta, azkenik, indarrean dagoen araudiari erreparatuta, urraketarik ez izatea. 2016ko kexak honela banatu dira: 342 kasutan irtenbide egokia topatu da, 44 kasutan ez da

irtenbiderik topatu eta, azkenik, 22tan ondorioztatu da ez zegoela hizkuntza eskubideen urraketarik.

Elebide-Hizkuntza-Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua 2008an jaio zen eta kasu bakoitzaren jarraipen zehatza egiten du, jasotzen den intzidentzia guztiek konponbidea izan dezaten. Zerbitzu honen ikuspegitik, herritarren salaketei esker erakundeak indartu egiten dira eta neurri egokiak har ditzakete hizkuntza eskubideen urraketak errepika ez daitezen.

2016ko memoria osoa eta xehetasun guztiak gaur bertan izango dira eskuragarri Irekian zein [www.euskara.euskadi.eus](http://www.euskara.euskadi.eus) web gunean.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKO JAURLARITZAK 1.650.000 EURO ONARTU DITU LANHITZ PROGRAMAREN BITARTEZ EUSKARA PLANAK DIRUZ LAGUNTZEKO ENPRESA PRIBATUETAN**

- **Guztira, 2004. urtetik 441 entitate ezberdinek jaso dituzte diru-laguntza hauek**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak 1.650.000 euro onartu ditu Euskadiko enpresei diru-laguntzak emateko euskararen erabilera eta presentzia areagotzeko beren lantokietan Lanhitz programaren bitartez. Lerro honen bitartez, enpresek laguntza izango dute beren euskara planak diseinatzeko edota garatzeko. Guztira, 2004tik 441 entitate ezberdinek jaso dute diru-laguntza lantokietako euskararen erabilera-planak garatzeko.

Finantzazio-lerro hau eremu sozio-ekonomiko pribatuan euskararen erabilera sustatzeko diru-baliabidea da. Zehazkiago, euskara-planak modu sistematizatuan diseinatzen, jarraipena egiten eta ebaluatzen laguntzeko eratu zen Erreferentzia Marko Estandarrean (EME) ezarritako helburuak eta jarduerak enpresa pribatuetan gauzatu ahal izateko berariazko diru-laguntza izan nahi du.

luz, Lanhitz programaren diru-laguntzak jaso zituzten enpresak 166 izan ziren; 105, 50 langiletik gorakoak; 47; 10 eta 50 langile bitartekoak; eta 19, hamar langiletik beherakoak. Lurreldeka, 99 enpresa gipuzkoarrak izan ziren, 62 bizkaitarrak eta 10 arabarrak.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

### EUSKO JAURLARITZAK ZINEMAGINTZARAKO DIRU-LAGUNTZA BERRIAK ONARTU DITU

- **Ekoizpen fasera bideratutako diru-laguntzetako lau ataletan igoko da diru kopurua: luzemetraiak, animazioa, dokumentalak eta laburmetraiak**

Eusko Jaurlaritzak zinemagintzara bideratutako diru-laguntza berrien lehen kontu-saila onartu du gaurko Gobernu Batzordean. Berriki Donostiako Tabakaleran izandako bilera publiko batean iragarri bezala, Eusko Jaurlaritzak 2.660.000 euro banatuko ditu aurten diru-laguntzetan, iaz baino 718.600 euro gehiago (%35 gehiago). Diru-laguntza hauek hainbat berritasun dakartzate eta proiektuen garapen faseak garrantzi nabarmenagoa hartuko du. Gobernu Batzordetik gaur pasatu den deialdi zehatza ekoizpen faseari heltzen diona da.

Ekoizpen fase honi dagokienez, lau ataletan igoko da bideratutako diru kopurua: luzemetraiak (1.360.000 euro; iaz baino 360.000 euro gehiago), animazioa (500.000 euro; 100.000 gehiago), dokumentalak (240.000 euro; 60.000 euro gehiago) eta laburmetraiak (160.000 euro; 40.000 euro gehiago). Luzemetraiei zuzendutako deialdian izango da berritasun nagusia; izan ere, aurrekontu txikiko filmak egiteko berezko azpiatala sortuko da (800.000 euroko aurrekontua baino gutxiago duten filmak). Lerro honen bidez, 500.000 euro bideratuko dira horrelako proiektuetara.

Hala ere, diru-laguntzen eredu berri honen berritasun nagusiak garapen faseari dagozkio. Aurten 300.000 euro bideratuko dira fase honetara, iragan ekainaren 7an iragarri bezala. Eredu berriari esker, fase honetan gidoia ere aintzat hartuko da. Ekoizlearen eta gidoilariaren arteko elkarlana sustatu nahi du egitura berriak, eta proiektu bakoitzari fase honetan ematen zaion diru-laguntzaren %45a gidoia lantzerantz zuzendu beharko da.



## Lana eta Justizia

### ERAKUNDE SINDIKALEI 1,1 MILIOI EUROKO LAGUNTZAK

Lan eta Justizia sailburuak, gaur egindako Gobernu Kontseiluaren bileran, Euskal Autonomia Erkidegoan ordezkartza duten erakunde sindikalei laguntzak emateko Aginduaren onarpenaren berri eman du.

1,1 milioi euroko laguntzen helburua da jarduera sindikalaren ohiko gastuak finantzatzea eta 2017an sindikatu horien bulego eta zerbitzuen funtzionamendu-premiak estaltzea.

Laguntza horiek modu proportzionalan banatuko dira eskatzen duten erakunde sindikalen artean, haiek 2016ko abenduaren 31ko hauteskundeetan lortutako ordezkartzaren arabera.

Diru-laguntzen finantzaketa Euskal Autonomia Erkidegoko 2017ko Aurrekontu Orokorretan aurreikusitako aurrekontu-kredituaren kontura egingo da. Horren zenbateko banakatua 880.000 eurokoa da ordainketa-kreditu gisa eta 220.000 eurokoa 2018rako konpromiso-kreditu gisa.

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### **LA LEY DE SOSTENIBILIDAD ENERGÉTICA DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS VASCAS SE REMITE AL PARLAMENTO PARA LIDERAR EL AHORRO Y LA EFICIENCIA ENERGÉTICA, Y LA IMPLANTACIÓN DE RENOVABLES**

La nueva regulación procedente de la Unión Europea en temas como el ahorro y la eficiencia energética obliga a las Administraciones Públicas a jugar un papel pionero en la implantación de soluciones innovadoras de ahorro, eficiencia energética y promoción de energías renovables, competitivas en los ámbitos donde tiene capacidad y puede jugar ese papel, como es el caso de los edificios, las necesidades de movilidad de su personal y el alumbrado público asociado a sus instalaciones y dependencias.

En el sector público Vasco existe un gran potencial de ahorro energético y las Administraciones Públicas no solo deben contribuir al ahorro y la eficiencia energética, sino que deben jugar, un papel de liderazgo ejemplarizante en el uso eficiente de la energía del País, lo que generará, por otra parte, importantes beneficios económicos, sociales y ambientales para toda la sociedad vasca.

Por todo ello el Gobierno Vasco abordó la pasada Legislatura la tarea de elaborar un proyecto de Ley que, de acuerdo con la orientación de la política energética, estableciera los pilares normativos para la sostenibilidad energética en el ámbito de las Administraciones Públicas Vascas, articulando los deberes y obligaciones que estas deben cumplir y que se orientan fundamentalmente al impulso de medidas de ahorro y eficiencia energética y de promoción e implantación de energías renovables.

Este proyecto de Ley de Sostenibilidad Energética de las Administraciones Públicas Vascas fue aprobado en el Consejo de Gobierno del 19 de julio de 2016, y remitido al Parlamento Vasco con fecha 21 de julio del mismo año. Como la disolución del Parlamento Vasco en setiembre de 2016 y la convocatoria de elecciones hizo decaer esta iniciativa legislativa, el Gobierno Vasco retoma ahora nuevamente el impulso de esta Ley.

El Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras sigue considerando muy necesario continuar con la iniciativa legislativa aprobada por el anterior gabinete en sus mismos términos, y por eso la incluyó en el Calendario Legislativo 2016-2020 aprobado por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 28 de febrero de 2017.

Tras el Consejo de hoy, la Ley de Sostenibilidad Energética de las Administraciones Públicas Vascas se remite nuevamente al Parlamento para su debate y aportaciones, con el objetivo de configurar un texto final con el mayor consenso posible.

Más información: <http://www.irekia.euskadi.eus/es/news/34006-gobierno-vasco-aprueba-proyecto-ley-sostenibilidad-energetica-las-administraciones-publicas-vascas-consejo-gobierno-2016>

## Desarrollo Económico e Infraestructuras

### EL GOBIERNO VASCO APRUEBA 15 MILLONES DE EUROS PARA AYUDAS AL PRIMER SECTOR DE EUSKADI

#### Alrededor de 11 millones de euros para apoyar a empresas transformadoras y comercializadoras de productos agroalimentarios

- Esta importante apuesta supone un nuevo paso en la política que el ejecutivo vasco desarrolla con el objetivo de afianzar una industria agroalimentaria competitiva y sostenible
- Las acciones susceptibles a financiar serán entre otras; inversiones en transformación y/o comercialización en productos agrarios, forestales y de la pesca y la acuicultura

El Gobierno Vasco, en su reunión de consejo del 27 de junio, ha aprobado la orden de la Consejera de Desarrollo Económico e Infraestructuras, Arantxa Tapia, por la que se convocan, para el año 2017, las ayudas a la transformación y comercialización de productos agrarios, alimentarios, forestales y los derivados de la pesca y la acuicultura. El importe total asciende a 10.925.000 euros, que serán cofinanciadas con cargo al Fondo Europeo Agrícola de Desarrollo Rural FEADER y a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, conforme a lo dispuesto en el Programa de Desarrollo Rural del País Vasco 2015-2020

